# Mary Richmond-en "ZER DA KASUZKO GIZARTE-LANGINTZA? SARRERA GISAKO DESKRIBAPEN BAT (1922)" liburuan 2. eta 3. Kapituluetan agertzen diren sei esku-hartzeren inguruko azterketa:

Taula: Norbanakoaren eta haien gizarte-inguruan kontzienteki egindako doikuntza prozesuaren argazkia

| |
|---|
| **ESKATZAILEAREN EGOERA.**<br><br>-Etxetik ihes eginda zegoen. Pentsio batean bizi zen.<br>-Lapurreta egiteagatik atxilotu zuten.<br>-Ordurako, gorputza zaintzea utzita zegoen eta nortasun psikopatikoa zuela agertzen da fitxan.<br>-Erreformatoriora bidali behar zen? Horra zalantza.<br>-Funtzionarioak laguntza eskatu zion Gizarte Langileari<br>-Langilea tutore bihurtzen da familiaren, neskaren eta auzitegiaren onespenarekin. |

| KASUAK | ESKATZAILEA | GIZARTE LANGILEA | ESKU-HARTZEA |
|---|---|---|---|
| 1. Kasua<br><br>**<u>Maria Bielowski</u>**<br>Neska zail, moldakaitz bat, garapen-arazorik ez duena | **FAMILIA MOTA:**<br>• Berreraikitako familia<br>• Guraso bakarreko familia.<br><br>**BETE BEHARREKO FUNTZIOETAN ARRAKALAK**<br>• Gurasoen azpisisteman<br><br>**ARAZOAK IDENTIFIKATZEN:**<br><br>*<u>Esparru pribatuan:</u>*<br>-Amaordearekin arazoak. Etorkinak ziren. Aita hil egin zen. Emakumea bakarrik.<br>-Anai zaharrak etxetik joanak, eta gazteena erreformatorioan.<br>-Etxetik ihes egin zuen haserre zegoelako diru kontuengatik (amari eman beharreko zatiaz) eta etxeratzeko ordutegiagatik.<br><br>*<u>Esparru publikoan:</u>*<br><br>-Amak ingelesez ez zekien. Atzerritarra baitzen. Horrek zaildu egiten du seme-alaben ordezkaritza gizarteari begira.<br>-Bizi kalitateari dagokionez, Mariak lanean hasi behar izan zuen 15 urte bete zituenean etxera dirua ekartzeko.<br>-Amerikarren bizitzara egokitu gabe.<br>-Dena dela, eskolara joaten zen. Aitzitik, eskolan ona zen. Segituan ikasi zuen ingelera. Lagun artean ere, ongi txertatu zen.<br><br>**MITOA:**<br>Ordaintze mitoa? Miserien errudun norbait egitea. Ez da esplizituki aipatzen. Baina, baliteke ama izatea Mariaren begietara paper hori betetzen duena. Mito hau askotan gertatzen da minduta eta desegituratutako familian. | **PRINTZIPIOAK:**<br><br>*<u>Malgutasuna erakutsi:</u>*<br>Mariak elkartearen eskolan lapurreta egin zuen hasieran. Hiru egunera aitortu egin zion lapurreta egin zuela, irakasle buruari. Hala ere, ez zuten eskolatik bidali<br><br>*<u>Estereotipoak aldendu:</u>*<br>Ez zioten lapurraren estereotipoa jarri eta aukera eman zioten lanean hasteko.<br><br>*<u>Artisaua izan:</u>*<br>Mariaren egoerara egokitzen asmatu zuen gizarte langileak. Horren adibide da, arropak erosteko ematen zitzaion diru-saria.<br><br>*<u>Berdinetik berdinerako harremana</u>*<br>Gizarte langileak erakutsi nahi zion bera ere ez dela perfektua. Galtzerdien kasuan bezala.<br><br>**PERTSONAREN INDARGUNEAK:**<br><br>*<u>Eskatzailean sinetsi:</u>*<br>Konfiantza zuen Mariarengan. Eskua luzatzen zion laguntzeko eta aldi berean askatasuna eman bere bidea egiteko.<br><br><u>-Ebaluaketa elkarlan bezala</u><br>Abesteko kurtsoa erabaki zuten aditu batek erabakitzea. Errealitatea beste begi batzuekin ikusten ere laguntzen zizkion beraz.<br><br>*<u>-Saihestu errua botatzea</u>*<br>Gaizki egindakoa leporatu beharrean ulertu delinkuentziaren jatorria.<br><br>*<u>Erabiltzaileak ulertuko duen lengoaia</u>*<br>Osasun arazoarekin gertatu bezala, Mariaren harridurarako, kontestuak eskatzen duen moduan azaldu zizkion gauzak Gizarte Langileak. | **TESTUINGURUA:**<br><br>*<u>LAGUNTZA EKONOMIKOA:</u>*<br>Familia batean lana egiteko aukera ikasketak ordaintzeko aldi baterako. Hilero ere diru laguntza bat ematen zitzaion. Baina beti saiatu da Gizarte Langilea oinarrizko laguntza ekonomikoen kronifikazioa ekiditen.<br><br>*<u>INFORMATZAILEA:</u>*<br>Sexu-gaitzaren inguruko informazioa eman eta prebenitzen saiatu arazoa.<br><br><u>AHOLKULARITZA:</u><br>Bizitzako erabaki bat hartzerakoan, ikastaroan apuntatzea, gomendatzen dio aditu batengana joateko.<br><br>*<u>KLINIKOA:</u>*<br>-Egoera fisikoa zaitu: hortzak, sexu-gaitzak sendatu…<br><br>*<u>TREBAKUNTZA:</u>*<br>Erabiltzailearen onura bilatzen da motibazioa sustatuz. Idazlanaren kasua hemen kokatzen da. |

| |
|---|
| AURRERA BEGIRAKO GALDERA: Gaur egun bigarren mailako hezkuntzako ikaslea da. Kartzelara sartu bazen nolakoa izango zen bere egoera? |